

# EUSKAL NAZIONALISMOARI BURUZKO IKERKETA IDEOLOGIKOAK

Esteban Antxustegi

Zuzebide ikasketak eta Filosofian lizentsiatua

Euskal nazionalismoa eta ideologia uztartu nahi dituen gogoeta hau lau zatitan banatuko dut. Lendabizikoan, euskal nazionalismoari buruz egin izan diren zenbait azterketen abiapuntua arakatzeko da adibide batzu erabiliz. Bigarrean, ideologia kontzeptua bera aztergai jarri eta honen birdefinizio hurbilago bat proposatzen da. Hirugarren eta laugarren ataletan, azkenik haren barneraketa nola gertatzen den aztertzearekin batera ideologiak gizakiengan betetzen duen eginkizuna ikertu nahi izango da. Era honetaz, ideologiaren ikuspuntu honen ildotik, tresna erabilgarri bilakatuz, euskal nazionalismora modu eraberritu batez hurbildu ahal izango gara. Egileen historia bere protagonisten eskutik, hain zuzen ere.

Aurreneko atalari loturik "euskal nazionalismoa" sarritan aztertua izan/edo nahi izan dela esan daiteke, hori bai, esparru desberdinetatik. Luzea litzateke orain gerra aurretik egin izan diren ikerketa-multzoa azaltzea, eta, era berean azken hogeitau urteotan egin diren analisiak ere azaltzea. Horregatik, beraz, adibide konkretu batzuri baino ez natzaie lotuko.

Gai honek betidanik izan du aktualitatea, zentzu intelektual eta politikoan behinik-behin, baina aktualitate horren interesak –edo ikuspuntuak– egoerekin batera aldatuz joan dira. Instrumentaliza-zioaren mamua behin eta berriro.

Horrela, bada, ondoren hauetako hainbat azterketa azalduko ditut, ikerketa hauen atzean dagoen interesa edo, hobeto esanda, ikertzaile hauei darien ideologia azpimarratuz.

Beno, hemen puntu bat argitu behar da. Bakoitzak, gutariko bakoitzak modu bat edo bestez pentsatuko du. Eta hau normala da, lizitua, orain esaten den bezala, eta zilegi gertatzeaz gain edozein eztabaida aberasgarriago bilakatzen da ikuspuntu desberdinak ematen direnean, ikuspegi gehiago argitzen bait dira.

Baina, eta hemen dago kaka, historigile edo pentsalari batek gertakizun bat –nazionalismoa gure kasuan– aztertzerakoan objektibitatean oinarritu beharko du, alegia, datu objektiboak erabili eta "lan zientifikoa" eginez, eta datu hauek kontrastatu ondoren konklusio batzu atera, baina ez alderantziz, hau da, datuak aurre-hipotesiak egiaztatzeko erabili, era honetan, egiaztapen hau posibilitatzen duten datuetan soilik oinarrituz, besteak errefusatuz.

Goian aipaturiko baldintzak kontutan hartzen ez dituen historigile edo pentsalariak ezingo zukeen "azterketa zientifikoa"rik burutu, baldin eta horrelako azterketa-motarik egitea posible balitz –eta honek beste eztabaida bat eskatuko luke– baina, orduan, ez dezagun esan gure azterketak objektiboak, zehatzak, historikoak, kritikoak, etab. direnik, pentsalari edo historigileei esatea gustatzen zaien bezala.

Euskal nazionalismoa –euskararen ikuspegitik– aztertu izan duen pentsalari edo filosofo bat Unamuno izan dugu. Honen erreflexioa, esan dugun bezala, euskararen arloan mugatuko dugu (nahiz eta hau ez izan bere kritikaren esparru bakarra), hizkuntza honen etorkizuna dela eta, bere erabilgarritasunaz, etab.

Unamunoren ustez "arraza baten izpiritua bere hizkuntzak baino ezerk ez du gehiago bereizten" (sic). Hala eta guztiz, bere arbasoen hizkuntza "euskaldun unibertsal" honek baino gogorrago gutxik gaitzetsi izan dute.

"La sangre de mi espíritu es mi lengua y mi patria es allí donde resuena soberano su verbo" (Nire izpirituaren odola nire hizkuntza da eta nire aberria nagusitasunez bera aldarrikatzen dudana lekua). Horrelako esaldien egileak 1984eko Ekainaren 20an aurkeztu zuen bere tesi doktora eta *Crítica del problema sobre el origen y prehistoria de la raza vasca* izenpean aditzera eman. Garai honetan *Del elemento alienígena en el idioma vasco* entsaioa ere plazaratu zuen.

Idazki hauen laburpena honako hauxe dugu: "Euskara, erremediorik

gabe, desagertuz doa. Baina heriotz hau ez dago kanpoko faktoreek eraginda, baizik eta barne-barneko arrazoi batek: eboluzionatzeko daukan gaitasun ezak. Euskara oztopoa dugu kultura europarra zabaltzeko. Euskara behe-mailako hizkuntza da eta, ondorioz, bultzatzen saiatzea denbora galtzea baino ez da. Euskaldunen irtenbidea kultura espainolean barneratu eta beren hizkuntza ahaztean gertatzen da. Horrela, euskaldun bezala ez lukete ezertxo ere galduko".

Hona hemen bere *Obren Bildumako* beste gogoeta bat: Euskara milenario honetan ezinezkoa dugu pentsamendu modernoan... Euskara oso estu datorkigu, eta haren materiala eta ehuna handitzea, zabaltzea ezinezkoa denez apur dezagun. Hilobiratu dezagun santutasun osoz, elizkizun egokiekin, zientzian enbaltsamatuz, eta utz dezagun ikerketetarako hain errelikia interesgarria".

Honekin batera, galdera bat egingo nuke, hau da, ez ote da horrelako zertxoren bat gertatzen hain hedatutak dauden Euskal Filologiako hainbeste azterketarekin? Ez ote da izango hainbeste azterketa egitea "erabiltze ezaren" estalgarria? Azken batez, hizkuntza baten etorkizuna bere erabileran dago, hizkuntza baten bizitza horrela frogatzen da, eta ez erabiliak izan ziren hainbat "forma", "modu" etab.ez egin ditzakegun azterketetan. Hizkuntza baten etorkizunaz ari garenez funtsezko erantzunak bilatzea iruditzen zait egokiena.

Unamunorengana itzuliz, hona bere beste zita bat: "Aurretik jakin erazi dut, euskara objektu izpiritual eta ukiezinak hitzen bidez aditzera

emateko erabat txiro dugu, eta ia ez du terminorik ideia abstraktuak orokorrean azaldu ahal izateko".

Eta beste bat: "Piztitzar bat berpiztea euskara kultur hizkuntza eta historikotzat berpiztea baino errazagoa da. Egin daitekeen bakarra hau da: Museoan berreraiki, enbaltsamatu eta horrelaxe gorde".

Unamunok "ezagutu gabe" kritikatzen du. Hizkuntza ezagutu gabe –inoiz ez zuen euskara ongi menderatu– eta hizkuntza honetan egiten zenaren berri izan gabe.

Unamunok betidanik izan zituen euskerarenganako aurreritziak. Horretaz gain, bere eritziak –zenbat eta zorrotzagoak hobe– toki askotan entzuten ziren, oihartzun handia izaten zuten. Joera hau haren beste jarraitzaile batenaren antzekoa da, –edo behinik-behin Jon Juaristik halakotzat jotzen zuen bere burua– baina hauen eritziak euskarari buruz ia ezer ez dakiten tokietan entzuten dira, euskara manipulaziorako tresna bilakatzen den tokietan, zirkulu erabat ideologizatuetan, non euskararen kritika eta honen urritasuna euskal nazionalismoaren kritika eta desegokitasunarekin batera joaten diren.

Unamunok, esate baterako, Orixe, Lizardi eta Lauaxeta euskal idazleen lanak irakurri behar zituen hain eritzi kategorikoak plazaratu baino lehenago, datuak kontrajarri, egoera eta garaia hobeto ezagutu, berak hainbat aldiz aldarrikatzen dituen euskararen gabeziak nola bideratzen zituzten ezagutu, hitz gutxitan, euskarak bizi zuen eraberritze-prozesu horretaz jabetu; eta ez, egiten zuen bezala, Salamanca edo Madrileko izpilu-

-dorretik noizbehinka, baina sistematikoki, ahulagoaren aurka "jakinduriazko" ereduak jaurtiki.

Arestian Joseba Arregi Kultur sailburuak, aita Mokoroaren omenaldian, kontutan hartu behar genukeen zerbait esan zuen, hots: "...azkenaldi honetan euskarari buruz asko hitz egiten ari da, eta gehienbat euskara bera ezagutzen ez duen jendea izaten da". Hemen datza arazoa. Euskara aztergai dela eta eztabaidatu, erabaki, zalantzan jarri, "pontifikatu", kritikatu, epaitu etab. egiten duten asko eta askok euskararik ez dakitela edo inoiz erabiltzen ez dutenak izaten dira. Uste dut puntu hau sakondu beharko litza-tekeela helduko diren eztabaidetarako.

Euskararen batasuna zela eta egin ziren saioetan ere Unamunoren epaia laster plazaratu zen, horrelako proiektu bat "laborategiko subjektoa" eta batua "munstro baserritarra" baino ez zela izango aditzera emanez.

1918.ean Euskaltzaindia eratu zenean proiektu honen euskaltzain bultzatzaileen artean A. Campion eta P. Broussain aurkitzen ziren. Horrelako gertakizun bat "ehunetik ehuneko" Don Miguel de Unamuno y Jugo "euskaldun"ari ez zitzaion aldamenetik pasa eta aurrez aipatutako euskaltzainen aurka azaldu zen "Campion eta Broussain-ek ez bait zeukaten euskal abizenik".

II. Errepublikako Araudi Batzarran (Cortes Constituyentes) Don Miguelek beti bilatu izan zuena aurkitu zuen, alegia, bere ahotsa entzun ahal izateko bozgorailua. Horrela, zuela hogeitamar urte Bilboko Arriaga Antzokian emandako hitzaldia gogoratuz (hainbat sektoreen artean

oso harrera txarra izan zuena, eta aipatutako hainbat zita berak han erabilitakoak dira) euskal hizkuntzaren hitz jeneriko eta abstraktuen gabezia frogatzera pasa zen. Adibidez, "substantzia" hitza aipatuz euskarak horrelako hitzik ez zeukala azaldu zuen eta honen arazoa –haren ustez– euskal herriak "saldarena" aipatzeko baino beste substantziarik ez duela aldarrikatu zuen.

Erridikulizatzeko joera hau ez da batere berria, beraz, euskararen aipamenetan. Baina Unamunok, nola ez, Espainiako Gorteetan zeuden ordezkari guztien aurretik esan behar, euskal parlamentariak zirela barne.

Horrelako fenomenoak aztertzerakoan objektibitatea eta ponderazioa bilatu beharra nahitaezkoa izaten da, eta horregatik –adibide gisara– Julio de Urquijo euskaltzalearen eritzia ekarriko dut hona. Honek, Unamunoren artikulua bat komentatzerakoan, honela dio: "... artikulua hau irakurri ondoren esan beharra daukat hainbat puntuetan Unamunoren aldeago nagoela gaurko beste hainbat euskaltzaleen alde baino ("purismoa"z hitzegiten ari zen, garai hartako garbizaletasun-joeraz eta aipatzen dituen euskaltzale horiek jarrera horren defendatzaile ziren). Hala ere –dionik ez dut nahi euskararen desagertzea, eta ez dut uste honen atzerakada bere barne-barneko arazoa denik ere". Baina horrelako joera ez zuen Julio de Urquijo-k bakarrik defendatu, garbizaleen jarreraren aurka beste euskaltzain garrantzitsuak ere agertu bait ziren, eta hauen artean R.M. de Azkue eta Seber Altube.

Unamunorekin jarraitu baino lehen G. Ponpidou frantziar presidente-

-ohiak plazaratutako esaldi bat (eta Goyhenetxek jasotakoa) gogoratuko dut, gero Unamunoren beste esakera batzurekin konparatzeko: "Il n'y a pas de place pour les langues et cultures régionales dans un France destinée a marquer L'Europe de son sceau".

Horrelako kultur inperialismozko proposamenak ez dira batere arraroak izango Unamunoren idazlanetan. Horrela, Don Miguelelntzat estatu espainoleko hizkuntza perfektua eta goi-mailako bakarra gaztelania da (berak espainola deituko dio). Ildo honetatik, J. Corominas filologo katalanari idatzi zion eskutitz batean hauxe esan zion: "Insistitu behar dut hobe zenukeela gaztelenez, edo hobeto esanda, espainolez, idatziko bazenu. Pentsa ezazu Ameriketaz. Han ez dira txikikeria kastizistetan erortzen. Utz ezazu katalana. Horixe izango da bere baitan daraman arima katalanari hoberen zerbitzatzeko modua".

Haren kezka nagusia, "haren bihotzaren muineko" mina Espainia zen, beronen hizkuntza ofiziala, espainola. Baditu esaldi batzu Nebrija edo errege katolikoak ere gainditu egiten dituenak. Inperialismo kultural honen adibide batzu azalduko ditut.

"Gaztelania hitz egin behar dugu, nahitaez eta gauza guztien gaintik, gaztelania erabiltzen duten herriei gure sentimendua ezartzeko lehendabizi eta, hauen bidez, gizateriaren bizitza historikoari".

Hauxe zen haren helburua, baina haren asmoa sendotzeko euskarari makilkadak ematen dizkio etengabe. Euskara aitzakia besterik ez,

indartsuak ahula erridikulizatu eta bere boterea adierazteko erabiltzen duen aitzaki bezala, bere helburua bultzatu ahal izateko.

Nola erreakzionatuko zukeen Unamunok behin betirako Salamanca joan beharrean Euskadin –Bilbon– gelditu izan balitz? Zein izango zatekeen haren jarrera euskararen aurrean? Egia da haren herritar askok ez zutela inoiz ahaztu, Parlamentu espainolean euskararen aurka irainak bota arren. Era berean, Jose Antonio Agirre lehendakariak bisitatu eta Eusko Jaurlaritzak egin nahi izan zuen Euskal Unibertsitatean errektore postua eskaini zion. Eta badakigu hunkitu egin zela gonbidapen honen aurrean. Beste egoera batean, beste portaera bat? Agian bai, Auskalo!

Euskararen etorkizuna, Unamuno etab. alde batera utzirik, edozein hizkuntzarena bezala, faktore batzuren esku geldituko da. Eta hauetariko garrantzitsuenetako bat, nire ustez inportanteena, euskaldunon borondatea izango da; hau da, euskaldunek, askatasunean euskara erabili nahi izateko erabakian oinarrituko dena, hizkuntza propioa kontsideratzen dutelako, "euskal" herria izaten jarraitu nahi dutelako, hizkuntzaren iraupean bere identitatea gordetzen dutelako, eta beraiek hartzen duten erabakiaren izenean, baina beti askatasunean oinarritutako asmoan. Guk daukagu, beaz lehen eta azken hitza.

Unamuno eta abar.ek "patrimonio de campanario" hau –horrela deitzen zion euskarari– ez zuten ulertu, edo ez zuten ulertu nahi izan. Baina hizkuntza guztiei begirune berdina zor zaie, eta

Unamunok berak esaten zuen bezala "azal hoberena norberarena da eta norberarekin batera hazten dena".

Euskaldunei, azkenik, bi aukera gelditzen zaizkie. Ondorengo hitz poetiko eta ederrak –Unamunok idatziak– onartzea: "El pensamiento que dormitaba cual crisálida en el vascuence de Axular, preso en el enmarañado capullo de la venerable lengua milenaria, lo romperá y saldrá a bañarse en luz, apenas secas al sol las recién abiertas alas, en el español de mañana" gonbidapen honek dituen ondorio guztiekin batera; edota, dimentsio unibertsala galdu gabe, euskaldunek bere izaeraren parte kontsideratzen duten zeinua gordetzea. Hau da, Don Miguelek bere lagun bati idazterakoan esan zion bezala; "aunque mi vaso sea chico, bebo en mi vaso". Euskaldunek badute –gutxienez izan dute– bere edalontzia eta, agian, ez dute galdu edo ahaztu nahi beste eda-lontzi handi eta hobeago baten truke.

Unamunok euskarari egiten dion kritikaren azpian (edo aurretik) ideologia azaltzen da etengabe, "uniformizazioa"ren ideologia –ez unitatearena, honek pluralitatea errespetatzen bait du– eta uniformizazio honen arabera euskararen iraupenaren aurka azaltzen da, baina iraupen hau ez da aztertzen erizpide linguistikoak erabiliz, ideologikoak baizik.

Ondoren Juan Pablo Fusi Aizpurua historiagile eta idazlearen artikulua "Nacionalismo y Libertad" –*Cuadernos de Alzate* aldizkarian azaldua– aztertuko dut.

Egileak galdera hau egiten du: Posible al da nazionalismoaren esparrutik gizarte askea egitea?.

Horrela, artikulua honetan nazionalismo batzu bereizi egiten ditu, eta espainiar nazionalismoa "nahitaezko gaitz" bezala ikusten duen bitartean (elementu zuzentzaile batzurekin konpon daitekeena) euskal nazionalismoak, ostera, pluralitatea ez duela onartzen aldarrikatuko du, askatasun indibiduala ez duela errespetatzen eta, ondorioz, euskal nazionalismotik abiatuta eta euskal nazionalismoan oinarrituta bertan aske izango den gizarterik ezingo dela eraiki.

Gogoeta hau –berak dio– nazionalismoaren baloreen eta printzipioetan baino egokiago iruditzen zaion jarrera etiko eta politiko batetik egiten du, azken hauek benetan progresista eta demokratikoagoak bait dira.

Nazionalismoari buruz hitz egite-rakoan bere ustez honen ardatz nagusia eskusibismoa da eta, azpimarratzen du, askatasun nazionala bultzatzea ez dela aski nazionalismo hau demokratikoki legitimatzeko. Gainera, nazionalismoak heziketa eta kultura aldetik nazionalitate hori indartzeko bere ikur eta elementuak bultzatzen dituenean (hizkuntza, historia, zeinu nazionalak, lurraldetasuna...) definizioz tentaldi totalitarioan erortzen da, era honetaz, gizabanakoak nazioaren zerbitzuan jartzen dituelarik.

Euskal nazionalismoaz hitz egiten duenean gogor kritikatzeko du hizkuntza eta gainerako balore nazionalen inposaketa justifikatzeko erabili izan den biktimismo historikoa eta honen instrumentalizazioa ere bortizki salatzen du, baina ez du ezertxo ere esaten gaur egun sarritan erabiltzen den bere biktimismo horretaz –adibidez, euskara ez jakin

eta jakin nahi ez dutenen aldetik praktikatzen dena— elebitasuna aldarrikatu baina gaztelania soilik erabiltzen denean, UGTk euskararen normalizaziorako egiten diren legeak errekurritzen dituenen etab.

Fusirentzat, nazionalismoak —euskal nazionalismoak batipat— nazioa aldarrikatzen duen doktrina eta sentimendu esentzialista eta emozionala ezartzen du, nazioaren eskubide eta interesak talde sozial, eritzi, gizabanako eta erakundeen gaineratik jartzen dituen hain zuzen.

Fusi autodeterminazio indibidualerako ideia kantianoan oinarritzen da, gizabanakoaren askatasun eta duintasuna gizakiaren izaera unibertsalean oinarritzen dela esaten duenean. Hau da, gizakia bera dela subiranoa eta subiranoa eta soberania nazionala bigarren mailan gelditzen da. Hala ere, soberania nazionala beharrezkoa den neurrian, Espainiako herriaren soberania defendatuko du, Espainiako konstituzioaren defentsa sutsua eginez.

Etika kantianoaren ikuspegitik autodeterminazio pertsonalaren terminoak gizabanakotik kanpo dagoen edozein autoritate moralen ukapena ekarri behar du. Horrela, askatasun-etika baten ildotik —insistitu beharra dago— ideal absolutu bakarra, printzipio moral soilak gizabanakoaren esku-bideak baino ez direla, hots, bere autodeterminaziorako eskubidea. Ez dago inolako autoritaterik eskubide hauek haren izenean sakrifikuak gertatzeko, gizabanakoaren baimenik gabe behintzat.

Hau horrela aldarrikatuz, bapatean, "Estado de bienestar" delakoaren gorazarrea egiten hasiko da, esta-

tuaren papera goretsiz ondasunak egoki banatzerakoan, estatuaren premia azken batean...eta, nazionalismoak gizabanakoaren zapalketara garamatzen bitartean, Estatuak gizabanakoaren eskubideak —maila handi edo txiki batean— bortxatzen baditu, mekanismo zuzentzaileen faltagatik baino ez da izango. Baina estatua bera ez da zalantzan jartzen.

Nazionalismoaren kritika estatuaren defentsaren bidez! Ez al dago beste nazionalismo bat estatuaren defentsan? Ez al zaio "asmo nazional" bat inposatzen espainol nazionalista ez den bati nazionalitate espainola ezartzen zaionean? Ez al da "legalitate" bat, Konstituzio bat etab. inposatzen Espainiako nazioaren soberanian oinarrituz? Eta guzti hau demokraziaren izenean. Zein da hemen "demokrazia"ri ematen zaion zentzua, beste nazionalismo batena agian?

Hala eta guztiz, jakin nahiko nuke nola eratuko litzatekeen Fusik proposatzen duen "gutxieneko estatu" hori eta zeintzu izango liratekeen arrogantzia estatal hori zuzentzeko beharrezkoak izan behar duten "mekanismo zuzentzaileak". Hori argitu arte, eta artikulu honetan ez da horrelakorik egiten, dagoena defendatu baino ez da egingo, euskal nazionalismoari egiten zaion kritika ikuspuntu ideologiko batean oinarrituz.

Lehenengo atal honetan, azkenik, beste artikulu bat aztertuko dut. Bere izena *Joseph Agustin Chaho: Las raíces antiliberales del nacionalismo vasco* eta egilea Jon Juaristi da.

Artikulu honen mamia —egilearen ustez— "Fueroak" eta "Konstituzioaren" arteko nahasmena dugu.

Berarentzat, euskal fueristak (gehienak liberal moderatuak zirela esaten du) fueroen esanahia termino konstituzionalistatan ipini zutenean *Voyage en Navarre* liburuko autorearen argudioa jarraitzea baino ez zuten egin, Chahoren "asmakizuna" besterik izan ez zena, hain zuzen ere.

Juaristiren eritziz, Chahok Fueroen zentzua manipulatu egin zuen, eta hauen benetako helburua aldatu, hau da, "pribilegio administratiboak" besterik ez zirenak "lege" bilakatuz. Eta Chahok berak pribilegio izena erabiltzen duenean ("Ley privada" zentzuarekin), Juaristiren ustez, gaizki erabiltzen du, ez bait ziren inolako legerik izan inoiz.

Horretaz gain, Juaristik, Chahok datu historikoak, dokumentu etnografikoak etab. faltseatu egin zituela dio (hainbat baieztapen Zumalakarregiren ahotan jarritz, karlisten testuak aldatuz...), era honetaz, karlismoak –arazo dinastiko bat izatetik kanpo– euskal identitatearen defentsa suposatzen zuela aldarrikatuz.

Ondoren, Chahoren izena eza-guterazi eta erreibindikatu izan duten idazleez trufatu egiten da –Chahok izur ederra sartu ziela aurpegiratuz–, hala nola, Justo Garate, Eugene Goyheneche, Xabier Kintana eta Pierre Bidarten eritziak ergelkeriatzat jotzen dituelarik.

Azkenik, Chahoren ikertzaile bat aipatuz, Braulio Foz aragoarra hain zuzen, honek egindako azterketak ere errefusatu egiten ditu, eta Chahoren hain aurkakoa izanik –adierazten du Juaristik– ezin duela ulertu nola ez den beste ondorio batzutura iritsi, Fozek Chao Fran-

tzian hedatzen hasiak ziren ideia utopikoen defendatzailetzat jotzen bait du.

Eta bapatean –inolako argumentaziorik erabili gabe– Jon Juaristik bere epaia botatzen du: Chaho indar errepublikanoetan infiltratuta zegoen probokadore kontrairaultzaile bat genuen eta haren helburua frantses progresisten artean nahasketa sortzea besterik ez zen. Ia ezertxo ere ez. Baina Juaristik egiten duen salaketa Chahoren "bekatu" batean oinarrituko litzateke, hau da, Belsunce izeneko legitimista frantsesa ezagutzean hain zuzen. Harrigarria benetan!

Kuriosoa da Jon Juaristiren portaera. Hau da, beste artikulua batzutan, bere argumentuak frogatzeko, datu ugari pilatzen dituen moduan, kasu honetan, ia "intuizio razional" baten bidez bere ikuspuntuari egokiak zaizkion ondorioetara iristen da, agian heldu behar delako baino ez, frogarik eman beharrik gabe.

Bere fobia antinazionalista –euskalduna, jakina– hain handia da (ebidentzia hau berak ere askotan onartu du), non bere inkonszienteak "bere etsai politikoak" (beraiek defendatzen dituzten ideiak erabat oker eta desbideratuak egoteaz gain) giza izaera azpikoenetakoa edukitzera "kondenaturik" uzten bait ditu, hala nola, bandolero, terrorista, hiltzaile edo hauen kide, ezgizon, probokatzaile, espia edo antzeko epitetoez hornituz.

Jon Juaristiren zenbait artikulua, beraz, ideologi-ikuspegi soiletik irakurtzea baino –ulergarriago, behintzat– ikuspegi psikoanalitikotik aztertzeari egokiago deritzot, zeren eta –bestela– "bere literatura"ra "hurbildu

ahal izateko giltzarriak erabat eskuraezinak gertatuko bait zaizkigu; agian, "probokazio" hutsa besterik ez direlako, idazleak beretzat "beharrezko" duen probokazioa baino ez.

Bigarren atalean "ideologia"ren azterketa egiten saiatuko naiz. Horrela, ez dut uste inork lotsa sentitu behar lukeenik, edota burututako eginkizuna balore gutxiagotzat jo, bere ikuspuntua "ideologiko" kontsideratzen badiote. Hau da, Molière-ren pertsonaia hari gertatu zitzaiona gogoratuz, lur jota gelditu bait zen bizitza guztian zehar prosaz hitz egiten aritu izan zela jakin erazi ziotenean.

Baina gure artean ematen dira horrelako joerak. Horrela, ia inork -idazle komunista batzuk izan ezik- ez du bere burua ideologotzat jotzen, ezta besteek horrelako izenik erabiltzen ere gure aktibitatea adierazterakoan. Lehenago onartuko dugu beste edozein apelatibo -filosofo soziala, eritzi politikoak...- ideologi kontzeptuarekin zerikusia duena entzun aurretik.

Gainera, ideologia kontzeptua bera ideologia kontzeptuaren partaide baino ez da, hau da, ideologia kontzeptu honen kontzeptu ideologikoa dugula, edo beste modu batez esanda, ideologiari buruz hitz egiten dugunean ideologikoki hitz egiten dugula.

Horrela bada, ideologia zer den zientifikoki aztertu nahi badugu, jakin beharra dago ea kontzeptuaren erabilera ideologiko honek erabilera zientifiko posible hori galeratzen duen ala ez definitiboki.

Mannheim soziologoak, ildo honetatik jarraituz, luzaro aztertu zuen egoera hau eta, agian horregatik,

erlatibismo etiko eta epistemologikoan bukatu ere bai. Zenon filosofoaren paradoxek arrazonomenduari balioari buruz galdera zalantzagarri batzu planteatu -edo gutxienez artikulatu- zituzten bezala, Mannheim-en paradoxak, ideologiaren analisi soziologikoan objektibitateari buruzko paradoxa aditzera ematen digu.

Non hasten da zientzia eta non ideologia? Galdera honekin ideologia aztertu behar duen soziologia zientifikoaren izana edo ez izana bilatu nahi da, honek dakartzan oztopo guztiak gaindituz. Hala ere, esan beharra dago, ideologiaren ikerketan objektibitatea bilatze honi jartzen zaizkion oztopo gehienak -eta hau ere paradoxikoa da- zientifiko sozialtzat bere burua jotzen dutenen artetik etortzen direla.

Gainera, alde batetik, pentsamendu ideologikoaren izaera iheskorra izaki, (hain ilun definitutako eta emozionalki indartutako erabilera sinbolikoen bidez adierazten delako) eta, bestaldetik, ideien arrazoi sozialetako froga zientifikoak beraien jarrera intelektuala kolokan jar dezakeen gauza bat bezala ikusita talde intelektual asentatuek honen aurrean eskaintzen duten jarrera defentsiboa kontutan hartuz, soziologia zientifiko honen garapena zailagotu egiten da.

Guzti honetaz gain, arazo handiena ez dago haren zailtasun teorikoan, beharrezko metodologian baino, eta batez ere, ideologia bere baitako entitate modura tratatzen denean azaltzen da, sinbolo kultural ordenatu batzuk osatzen duten sistema bezala, eta ez bere inguru sozial eta psikologikoak aztertzerakoan.

Jarrera ideologikoez kritika gogorak jaso izan dituzte. Hemen, adibide gisa, Werner Stark soziologo famatuaren eritzi batzu azalduko ditugu. Hala nola:

"Pentsamendu ideologikoa susmagarria da, zalantzazkoa, gainditu eta gure gogotik egotzi behar genukeen zerbait".

"Ez da gezurra esatea bezalakoa, zeren eta gutxienez gezurtia zinismora heltzen bait da, baina ideologoa, aldiz, ergeltasunean geratzen bait da. Biok daukate zerikusia faltsutasunarekin. Hala ere, gezurtiak besteen pentsamendua faltsutu nahi duen bitartean, bere pentsamendu pribatua zuzentasunean gorderik, ideologia erabiltzen duen pertsonak, oster, bere burua engainatzen du, eta besteak hutsegitera bultzatzen baditu, horretaz ohartu eta nahi gabe egiten du".

Bukatzeko, beste bat:

"Ideiak eta sinismenak errealitateari bi era desberdinez atxikitzen zaizkio: edota errealitateko "egiteei" edota errealitate horrek sortzen dituen "nahiei", hobeto esanda, errealitate horren aurrean ematen diren "erreakzioei". Lehenengoari razional izena eman geniezaioke eta bigarrenari, bestalde, emozionalitatez hornitutako adierazpenaren bidez; lehenengoa, eza-gutzekoa, eta bigarrena, ebaluatiboa. Edota Theodor Geiger-en adibidea erabiliz: egite sozialak eragindako pentsamendua ur garden eta garbia dugun bitartean, ideia ideologikoa eragindakoa, oster, ur zikin, lohitu eta bertan daraman zikinkeriatatik kontaminatua gertatuko da. Lehendabiziko uretatik

edatea osasungarria dugu; bigarrena, aitzitik, hobe ez dastatzea kutsatu nahi ez badugu".

*Ideologia eta zibiltatea* bere entsaioan Edward Shils-ek, oraindik ere, Stark-ek baino ikuspegi okerragoa ematen digu ideologiari buruz. Ikusmira ideologiko honetan faszismo italiarra, nazionalsozialismo germaniarra, botxerismoa, komunismo frantziar eta italiarra, Action Française, Falange Española, British Union of Fascist eta Amerikako maccarthysmoa batzen ditu, joera ideologiko hauek besteei nahitaez inposatu beharra dagoen ezaugarri batzutan oinarritzen direla esanez. Egile honentzat, joera hauek ikuspegi dualista bat suposatzen dute, "gu" (onak) eta "besteak" (gaiztoak) osatzen duten bereizketan oinarrituz. Horretaz gain, doktrinarioak dira, beraiek bait daukate benetazko egia eta bizitza kultural eta sozial guztia ordenatzea baino ez da beraien helburua.

Hala ere, Shils-en eritziak ez dira hemen gelditzen. Horrela, bere ustez, sistema demokratikoak, aniztasuna proposatu arren, aurretik aipatutako sistemak erabilitako tresna eta helburuetan –orain estatuaren izenean– sarritan erortzen direla lasai asko esango du, estatuak berak eskaintzen duen botereaz baliatzen direlarik eginkizun horretan.

Lehen aipatutako ideologiaren ezaugarri sozialei loturik, hauxe bait da puntu garrantzitsuena, bi dira honi buruz ematen diren jarrera nagusiak, interesarena eta tentsioaren teoria. Lehenengoan, interesaren teorian, ideologia mozorro eta arma da. Bigarrenean, tentsioaren teoriarentzat, ideologia sintoma eta erremedio gertatzen da.

Interesaren teoriaren ikuspuntutik, jarrera ideologikoak borroka unibertsalaren ildotik ulertzen dira, abantailak lortzeko ikusmira hertsitik. Tentsioaren teoriaren arabera, aldiz, jarrera ideologiko hauek oreka sozio-psikologikoa lortzeko etengabeko esfortzuaren ikusmiran jarri beharko genituzke.

Lehenengoaren arabera, gizakien helburua boterea lortzea da; bigarrenaren ildotik, gizakiek antsietatetik ihes egitea bilatzen dute. Interesaren teoria, bere aldetik, aski ezaguna dugu ikuspegi marxista batetik eta, gainera, bera da elementu intelektual asentatu gehienek erabiltzen dutena. Horrela, norberaren taldea, klasea, partidua etab. botererantz bultzatu nahi denean bigarren joera hau erabiltzen da.

Jarrera honek, kalkulu razionalak erabiliz, abantaila pertsonalak bilatzen ditu, eta, gainera –hau inportantea izaki–, ideologiaren kontzepzio makiabeliko batera garamatza, ideologia goi-mailako maltzurkeria eta adimenaren ezaugarria kontsideratuko bait da.

Esparru honetan kokatuz, gizartea borrokaleku bezala azalduko zaigu, interesen arteko borrokaleku etengabekoa, printzipioen arteko gatazka eta honen arabera ideologia kategoria sozialak argitzeko –edo iluntzeko– erabiliko da, uste sozialak baretzeko –edo area-gotzeko–, arau sozialak mantentzeko –edo hausteko–, kontsentsu soziala indartzeko –edo ahultzeko–, tentsio sozialak gainditzeko –edo handitzeko–. Horixe izango da ideologiaren betebeharra, horretara mugatuko da bere eginkizuna.

Azken batez, ideologia eta honek burututako azterketa, estrategia eta taktiken errealismo estura eramanda eta mugatuta baino ez da geldituko, edota, Whitehead-ek esaten duen bezala, ideologia bere "estutasunaren saria" besterik ez litzateke izango.

Ideologiaren barneratzearekin loturik, hirugarren atalean, honako adibide honekin hasiko naiz. Bigarren Mundu-Gerran Britainia Haundia isolatuta gelditu zenean Churchill lehen ministrariak diskurtso batean hitz hauek esan zituen: "Hondartzetan borrokatuko dugu, soroetan, kaleetan, mendietan borrokatuko dugu..." eta bere laguntzaile batengana zuzenduz haxe esan zion ahopeka "eta burua soda-botilekin apurtu beharko diegu, ez bait daukagu armarik".

Honelako diskurtso eta perpausa erretorika sozialaren lekuko garbiak dira, eta bere indar pertsuasiboa ez dago frogatu beharrik. Egia da, halaber, ideologiak errealitatearekin kontaktu guztia gal dezakeela eta orgia fantastiko bihurtu. Egia da, ez dut dudarik, britaniarrek toki guztietan (hondartzetan, kaleetan, mendietan...) borrokatuko zuketela inbasorearen aurka –behar izanez gero, soda-botilekin ere bai–, baina mezu honen bidez –eta hau da garrantzitsuenak– Churchill-ek bere herritarren asmoa eta sentimendua aditzera eman zuen, desio bati hitzak jarri, eta, mezu hau formulatzerakoan, aurretik emozio pribatu solteak baino ez zirenak, jarrera publiko eta egite sozial bilakatu ziren.

Honelako adibideak erraz aurki daitezke gure historia hurbilean. Hitler-ek berak ere, judu korruptuaren irudi antropologikoa aditzera eman

zuenean, ez zuen deformatu behar izan alemaniarren kontzientzia. Zegoen sentsazioa objektibizatu baino ez zuen egin, bere neurosis pertsonala indar sozial bortitz bilakatuz.

Horrela, gertakizunen mundu nahaspilotsua, sentimendu eta sinesmenen kosmosari lotzen zaiotzen, oso iluna gertatzen bada, ilunago bilakatzen da formulatu nahi izatean.

Rousseau-k (filosofo guztien artean antropologoenak) gertakizuna ulertzeko beranduegi edo kontutan hartzeko goizegi heltzen den bidaiari antropologoaren paradoxa kontzeptuko metodoa hausnartu zuen. Ikerketa egokia burutu ahal izateko, filosofo honen ustez, aztertzen ari garen pertsona edo taldearen gogoan sartzeko gaitasuna landu behar genuke, Levi-Strauss-ek deitzen zuen "enpateia epistemologikoa"ren antzeko zerbitzatuz.

Era honetaz, gure mundua eta ikergai diren objektuen munduaren arteko zubia ez da konfrontazio pertsonalarena izan behar (mundu edo interpretazio desberdin hauen arteko konfrontazioan –aztertzailerak eta aztertuaren artean– beti garaile aterako bait gara), aztergai dugun pertsona, talde edo dena delakoaren gogo-irakurketa esperimentalak lortzearena baino. Horixe da azterketa antropologikoen helburua.

Rousseau-k bidea erakusten digu. Ikerketa honen eginkizuna, besteengandik jasotako pentsamenduak probatzerakoan, bizirik dirauten pentsamoldeak dastatzean, giza gogo guztiak esperientzi iturri direla ohartzean –eta esperientzia hauek ikertu, sentitu egin daitezkeela

frogatzerakoan–, aztertuek pentsatzen duten modura pentsatzean saiatuz, eta beraiek erabiltzen dituzten materialak erabiliz... orduan, orduan bakarrik, beraien eginbeharra ulertzen hasiko gara eta benetan aztertzen hasiko... zeren eta, bestela, ohartu gabe, aurreritziak ezarriko bait ditugu gure ikerketetan. Levi-Straussek ere *Tristen Troopiques*etan luze hitz egiten du arazo honetaz "adimen neolitikoa" eta "afinidade estrukturala" aztertzekoan.

Bestalde, gaur eguneko zientzia sozialetako lan teoriko ugari bi kontzeptu analitiko hauek bereizi eta zehaztean datza, kultura eta egitura soziala. Bere helburua erredukzionismo hegeliar edo marxistatik ihes egitea baino ez da. Horretarako, aktibitate sozialaren antolaketa –bere eredu instituzionalak– eta berari bizia ematen dioten ideiak ulertzea izaten da, esfera hauen artean ematen diren erlazioak konprenituz. Honen bidez, egitura soziala eta kulturaren kontzeptuak zehaztu nahi izango dira, zeren eta –gehienbat– erdiegituratutako ideiak, suposatutakoak, sistemati-zatutako nozio indiferenteak izaten bait dira gizaki xeheen aktibitate arruntak eguneroko bizitzan zuzentzen dituztenak.

Alde guztietako gizakiek egitura sinbolikoak garatu dituzte, eta, hauen arabera, pertsonak ez dira giza taldearen partaide xume kontsideratuak izaten, kategoria garbien jabe diren pertsonak baizik, gizabanako-talde zehaztuak bezalatsu. Era guztietara, egitura hauen aniztasuna ematen bait da, bizitza arrunta, giza talde bateko partaideak mugitzen diren egunerokotasuna –bera ere ekintza

sozialaren arloa bait da– ez dago aurpegi gabeko pertsonen osatua, kalitate gabekoek eratua, baizik eta pertsona ezagun, zehatz eta aipagarriek eraikitako talde konkretuen bidez. Gainera, talde hauek definitzen dituzten sinbolo-sistemak ez dira gauzen baitan ematen, baizik eta historikoki eraikiak gertatu dira, sozialki iraun dute eta indibidualki aplikatuak izan bait dira.

Nazio sinbolora itzuliz, Emerson-ek nazioa "azken komunitate" bezala definitzen du, "bere baitan dauden komunitate txikien gainetik gizakien adhesioa jasotzen duen komunitate handiagoa, honen gainetik dagoen gizarte handiago baten pretentsioetatik iraun ahal izateko" alegia. Bere ustez, "nazio" terminoaren anbiguitatea "adhesio" terminoarekin argitzen da, horrela, "bertako partaideak agente arduratsu gisara onartuak adierazita azaltzen bait dira, eta bere asmoak, ekintzak, itzaropenak etab. kontutan hartuta".

Era honetaz, lehendabiziko nahia identitatea bilatzea izango litzateke, eta, bigarrena, identitate hau publikoki onartua izatea. Honekin afirmazio soziala erakarriko da, zerbait bagarela adierazi, edo, Mazzini-k esaten zuen bezala, "esistentziaren esistentzia eta izen bat edukitzea" plazaratuz.

Onartua ez izateak, zerbait desberdina garela jakinik, frustrazio galanta ekartzen du; eta, gainera, herri batek bere izaera hizkuntza, odola, arraza, tradizio, kultura etab. i lotuta daukala jakiteak herri horretako partaide den gizabanakoari "zentzua" ematen dio. Bestaldetik, hurbiltasun hauek –gizaki autonomo bezala– bere identitate propioa galtzeko arriskua

salatuko dute, berari kanpotarra iruditzen zaion ordena batera subordinatuta gelditurik, kulturalki masa indiferente batetan (nahiz eta hiritarren masa izan) suntsituta murgilduz, edo, okerragoa dena, beste komunitate etniko, razial edo linguistiko baten menpe aurkitzearen kontzientzia baldin badauka.

Azken atalean, ideologiaren funtzionamenduan alegia, eskema kulturalak –erlijiosoak, filosofikoak, estetikoak, zientifikoak, ideologikoak...– "programak" direla esan beharra dago, hau da, prozesu sozial eta psikologikoak antolatzeke patroio edo eredu bat ematen dutela, sistema genetikoak prozesu organikoak antolatzeke eredu bat suposatzen duten bezala.

T. Parsons-ek *An Approach to Psychological Theory in Terms of the Theory of Action* liburuan psikologia eta zientzia sozialetako terminoetan ematen den "erredukzionismoa" definitzen du. Maila batzuk bereizi izan dituela esango du, hala nola, organismoa, pertsonalitatea, sistema soziala, kultura..., hauek antolaketa-eta kontrol-mailak bait dira. Egilearen ustez, azpiko mailak goikoak kondizionatu eta, neurri batean, determinatzen dituzte beraiek parte hartzen duten egituretan, eraikuntza handi bateko estabilitatea berau osatzen duten materialen arabera aurkitzen den erara. Baina materialen propietate fisikoek ez dute eraikuntzaren "planoa" determinatzen; hau beste maila bateko faktorea da, "organizazio" faktorea. Organizazioak materialen arteko "harremanak" kontrolatzen ditu, eraikuntzan "erabiliak" izan diren modua eta, honen arabera, eraikuntza modu

partikularreko sistema ordenatu bat baino ez da izango; hala ere, serie honetan "behera" begiratzan badugu, beti ikertu eta aurki ditzakegu bertan goi-mailako organizazioaren funtzioan eragina izango duen "baldintza"-multzoa. Baldintza hauek ongi ulertu, neurtu eta aztertzen baditugu, goi-mailetakoa sistema organizatuetan ematen diren prozesuetan baldintza hauek zernolako faktore eragingarri eta determinante gertatzen diren ohartuko gara. Baina, serie honetan ere, "gorantz" begira genezake. Norabide honetan "egiturak", organizazio-eskemak", "adiera-egiturak", "programak" etab. ikusiko ditugu, eta hauek orain arte aztertu dugun sistemaren organizazio-gunea osatuko dute.

Patroi sinboliko hauek beharrezkoak dira, giza portaera erabat plastikoa bait da, gizakiaren kontrol osoaren eza gainditzeko. Horrela, barrutik intrinsekoki, gizakia programa edo eredu genetiko batzuren bidez modu difusioan antolatzen da; eta, kanpotik, estrinsekoki, modu efektibo batera iritsi nahi badu, kontrolatuta egon behar du, eta horretarako ere programa edo eredu batzuz hornitu beharko da.

Gizakiak, erantzunak emateko daukan berezko gaitasun horretan, modu desberdinez plazaratuko ditu erantzun hauek, eta honen arrazoia, eredu genetikoetan baino gehiago, gizakien portaera-eredu kulturalen bidez zuzenduta dagoelako gertatzen da.

Gizakia, tresna-egilea, farre egiten duen edo gezurrak kontatu edo historiak asmatzen dituen abere hori, osotu gabeko aberea dugu edo, hobeto esanda, bere burua osotzen duen

aberea. Bere ekintzaren protagonista izaki, gizakiak eredu sinbolikoak eraikitzeke –gaitasun orokorraz baliatuz– bere burua definituko duten gaitasun berekoiak asmatu egiten ditu, eta ideologiaren sorreraren bidez –eredu sozialaren eredu eskematikoen bidez– gizakia abere politiko bilakatzen zaigu.

Ideologiaren funtzioa politika autonomo bat egin ahal izatea bihurtzen da, ideologiak sentiduz hornitutako autoritatezko kontzeptuak luzatu eta berauek zentzu guztiarekin eskuratu ahal izateko irudi persuasiboak eskaintzen bait ditu.

Modu honetaz, eta lehen alde batera utzi dugun "tentsioaren teoriara" itzuliz, aurretik egindako baieztapenak –beste modu batez esanda– haxe adieraziko luke: ideologia tentsio-egoera baten aurrean ematen den erantzuna besterik ez dela. Baina orain ez gara "tentsio kulturalaz" bakarrik ari, psikologikoa eta soziala barne sartzen dugularik.

Ekintza ideologiko batek lehenbizi "norabide-galera" ekartzen du, norberak dituen betebeharrak eta eskubide hiritarren unibertsoa ulertzeko ezintasunaz –eredu bideragarrien faltagatik– ohartzera hain zuzen. Politika bereizgarri –edo politika horretarako bereizketa handiagobaten garapenak desoreka sozial edo tentsio psikologiko handia ekar dezake. Modu honetaz, ideologia egoera sozial ulertezinari zentzua emateko helburu gertatzen denean, egoera hauek interpretatu eta bere baitan aurkitzen diren pertsonen zentzua ematen dien neurrian, baliagarri bilakatzen da; eta honek esplikatzeko du maila handiko

ideologiaren izaera figuratiboa eta, behin onartuz gero, berauen defentsan jartzen den gogo guztia.

Metaforak hizkuntzaren esparru semantikoa handitu egiten duen moduan, literalki aditzera eman ezin daitezkeen esanahiak adierazten bait ditu, ideologiak ere "gertakizun ez-familiarrak" neurtzeko eta hauei aurre egiteko esparru sinboliko berriak eskaintzen dizkigu. Ideologiak izan ditzakeen beste ezaugarri batzu ere (onartu gabeko beldurren proiektzioak, beste arazo batzuren mozorroak, talde-elkartasunaren adierazpenak...) errealitate sozial problematiko baten adierazgarriak eta kontzientzia kolektibo bat sortzeko moldeak izango ditugu.

Aurrez, hasieran, aipatu ditugun idazleetara –Unamuno, Fusi, Juaristi– bueltatuz, hauxe da gertatzen zaiena: "etsaien" kritika egiterakoan edo haien baloreak mespretxatzerakoan beraien mozorroa azaltzen dutela, beraien ideologia hain zuzen, hau da, beren "tentsio" edo "interesak" estaltzen dituen mozorroa, beraienez zentzua duen eta baliagarria gertatzen zaien mozorroa.

Puntu honetara helduta, galdera bat egin beharra dago eta hauxe litzateke: Eritziak –neurri handi batean, gutxienez– ideologikoki plazaratzen badira, ezinezkoa gertatuko ote zaigu haien ikerketa egitea? Nire ustez ez genuke horrelako ondorioz atera behar, baina horretarako nahitaezkoa gertatzen da gure aurreritziak baztertzea.

Era berean, "euskal nazionalismoa" (gure kasuan "nazionalismo tradizionala") azter dezakegu, baina

"nazionalismoa" –historia egiten duen nazionalismoa, protagonisten nazionalismoa– ez da liburu ideologizatuetako nazionalismoa izango (hau mozorroa da), ez da teorizatzaileen nazionalismoa (hau historiagileek –beraiek ere bai ideologikoki aztertuko dute). Aztertu beharrekoak "ideia hauen BIZIPENA eta INTERIORIZAZIOA" izan behar du, hots, "corpus" (doktrina) honek pertsona baten bizitzari ematen dion "zentzu praktikoa" arakatuz.

Historiagile batek aztertzen duen nazionalismoa –idatzitakoa besterik ez bait da– letra hila baino ez da, nahiz eta horren bidez bere asmoa "transzendentalitatea" aurkitu nahian kokatu. Baina horrek ez du zerikusirik nazionalismoak nazionalista batentzat –nazionalismoa bizi duenarentzat– suposatzen duenarekin. Honentzat nazionalismoa bere izaeraren arrazoi bilakatzen da, bere bizitza propioa da eta bere ekintzak –arruntak edo ezohizkoak– patroi horrekin neurtu eta baloratzen ditu.

Benetako historia honetara hurbildu behar dugu, nazionalismoaren benetako historiara, egiazko zentzua daukan nazionalismora; eta ikuspegi hau menderatzerakoan, gauzak ulertu eta bizitzeko modu honetaz jabetzen garenean, gure aztergaia ikertu eta sakontzeko pausu garrantzitsu bat emana izango dugu.

Arazo honetan benetako protagonista ez da nazionalismoa, abstraktuki ulertuta, nazionalismo hau bere bezala bizi duena baizik. Nazionalismo hau egiazkoa da, bizigarria delako. Hemen ez da gertatzen historiagileak egiten duen

fikzioa, bere ikuspegia eman testu batzu interpretatuz. Baina interpretatzeak ez du suposatzen ezagutzeak, benetan ezagutzeko bizi egin behar delako. Eta historigileak ez du bizi interpretatzen duena, bizi duena izango da beharbada interpretazio horren bidez proposatzen duen "interesa" edo "tentsioa". Hori berea da, baina ez bestea, hura bakarrik protagonistari dagokio.

Azken batez, ideologia bat bere protagonistentzat izango da baliozkoa, beraiek ulertu eta onartu bait dute baliagarri iruditzen zaielako. Eta hauxe da nazionalismoaren historia, protagonista horien historia. Zenbat eta gehiago hurbildu nazionalismo horretara, gure herriko historiaren zati bat (handiagoa, txikiagoa...) ulertu eta ezagutu ahal izateko orduan eta egoera egokiagoan aurkitzeko aukera izango dugu.

---

## Bibliografia

---

APTER, D; *Ideology and Discontent*. Princenton, N.J., 1964.

AZURMENDI, J; *Arana Goiri-ren pentsamendu politikoa*, Hordago, Donostia, 1979.

BELTZA; *El nacionalismo vasco 1876-1936*, Txertoa, Donostia, 1976.

BURKE, K; *Language as Symbolic Action*, University of California Press, Berkeley, 1966.

CORCUERA ATIENZA, J; *Orígenes, ideología y organización del nacionalismo vasco (1876-1904)*, Siglo XXI, Madril, 1979.

CUADERNOS DE ALZATE Negua; Pablo Iglesias argitaletxea, Madril, 1984-85.

GEERTS, C; *La interpretación de las culturas*, Gedisa editorial, Bartzelona, 1989.

LARRONDE, C; *El nacionalismo vasco. Su origen y su ideología en la obra de Sabino Arana-Goiri*, Txertoa, Donostia, 1977.

MICHELENA, L; *Historia de la literatura vasca*, Minotauro, Madril, 1960.

MUGA Iraila; Iparragirre S.A., Bilbao, 1989.

SOLOZABAL, J.J; *El primer nacionalismo vasco*, Júcar Ediciones, Madril, 1975.

TOVAR, A; *Mitología e ideología sobre la lengua vasca*, Alianza, Madril, 1980.

UGALDE, M; *Unamuno y el vascuence*. Ekin, Buenos Aires, 1966.

UNAMUNO, M; *Obras completas*, VI. atala, Afrodísio Aguado, Madril, 1958.

VILLASANTE, L.; *Historia de la literatura vasca*, Aránzazu, Oñati, 1979.

ZULAIKA, J; *Violencia vasca. Metáfora y sacramento*, Nerea argitaletxea, Madril, 1990.